

150/2016 EBAZPENA, urriaren 11koa, Emergentziak Erakundeko Zuzendari Gerentearena Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Emergentziak Erakundean Erizaintzako Ondoko lanpostua izendapen askez betetzeko.

Emergentziak Erakundean Erizaintzako Ondoko lanpostua hutsik dago. Hori dela-eta, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikuluko hirugarren arau komunean, Osakidetzaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuan eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuan ezartzen denaren arabera, lanpostu hori izendapen askez betetzeko deialdi publikoa iragartzea erabaki du Zuzendaritza Gerentzia honek, honako oinarrien arabera:

OINARRIAK:

1.- Parte hartzeko baldintzak.

Deialdi honetan parte hartu ahal izango dute honako baldintza hauek betetzen dituztela egiaztatzen dutenek:

a) Osakidetzako edozein zerbitzu-erakundetan, estatutupekoa, funtzionarioa edo lan-kontratadun finkoa izatea eta plaza jabetzan edukitzea dagokion talde profesionalean B1.

b) B1 lanbide-taldeari dagokion titulazioa edukitzea.

c) B1 lanbide-taldean 4 urteko lan-esperientzia gutxienez edukitzea

d) Uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuan eta Osakidetzako Euskara Planean ezarritako gainerako betebeharrak.

2.- Kontuan hartuko diren merituak

Lanpostu honetan aritzeko interesgarriak eta baliotsuak diren beste merezimendu batzuk aurkeztu ahal izango dira.

3.- Euskararen ezagutza.

Euskararen erabilera Osakidetzan normalizatzeko den martxoaren 18ko 67/2003 Dekretuak, eta berau garatzen duten arauak, xedatutakoaren arabera baloratuko da.



4.- Eskabideak aurkezteko epea eta modua:

Interesdunek Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Emergentziak Erakundeko Pertsonaleko Zuzendaritzan aurkeztu beharko dituzte eskabideak, helbide honetan: (M^a Díaz de Haro, 53 – 48010 Bilbao). Horretarako, 10 egun balioduneko epea izango dute, Ebazpen honi dagokion iragarkia EHAA-n argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Halaber, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan adierazitako leku eta moduetan ere aurkeztu ahal izango dira eskabideak (30/1992 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legea).

Interesdunek eskabidea datu pertsonal guztiekin, eta dokumentatutako "curriculum vitae"-rekin batera, bidali beharko dute. Dokumentazioa honelakoa izan behar da:

- a) NANaren, pasaportearen edo gidabaimenaren fotokopia konpultsatua.
- b) Funtzionario edo estutupeko langile izendapenaren fotokopia konpultsatua edo, hala badagokio, lan-kontratu finkodun langilea dela egiaztatzen duen agiriarena.
- c) Baldintzak betetzea egiaztatzen duen dokumentazioaren fotokopia konpultsatua.
- d) Kontuan hartzeko meritu guztien fotokopia konpultsatua.

Ez da beharrezkoa izango aurreko paragrafoan adierazi den bezala egiaztatzea CV aplikazio informatiko korporatiboan behar bezala egiaztatuta badaude, beti ere izangaiak eskabidean horrela dela adierazi baldin badu.

5.- Balorazio Batzordea.

Balorazio batzorde bat osatuko da, batzordeburu Zuzendari Gerentea edo hark eskuordetzen duena izanik, eta hauexek izango dira bertako partaideak: Kudeaketa ekonomikoko Zuzendaria, Pertsonaleko Burua (idazkari izango dena, ahots eta botoarekin), Bizkaiko Arduraduna eta Gipuzkoako Arduraduna.

Izangaien balorazioa egindakoan, eta berau kontuan hartuta, proposamena osatuko da dagokion izendapena egiteko. Batzordeak lanpostua hutsik uztea erabaki dezake, aurretik arrazoitutako txostena osatuta, baldin eta hautagaiak eskatutako baldintzak betetzen ez badituzte.

Akta egingo da Batzordea biltzen den bakoitzean. Bertan, aurkeztutako izangaiak zerrendatuko dira, eta lanpostua beraietako bati esleitzeko edo deialdia bete gabe uzteko kontuan hartutako arrazoiak emango dira.

6.– Hautatzeko prozedura.

Inolaz ere ezingo dira baloratu deialdiaren iragarkia EHAA-n argitaratzen den egunean eduki ez diren merituak, ezta eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehen behar bezala aurkeztu eta egiaztatu ez direnak ere

7.- Prozedurari amaiera ematen dion Ebazpena.

Hemen hasitako prozeduraren amaiera (lanpostua esleitzea edo hutsik uztea), Osakidetza Emergentziak Erakundeko zuzendari gerentearen Ebazpenaren bitartez egingo da, eta Osakidetza intraneten eta web-orrian argitaratuko da. Era berean, iragarki bat argitaratuko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian.

Ebazpen horrek ondorioak izango ditu iragarkia EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, bertan besterik xedatu ezean behintzat.

8.- Ebazpen honen aurkako errekurtsioak.

Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen honi dagokion iragarkia EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Bilbon, 2016ko urriaren 11n



EMERGENTZIAK
EMERGENCIAS

Emergentziak Erakundeko Zuzendari Gerentea

Jose M^a UNANUE MUNDUATE